


Erregea eta koroa

Errege batek kilo 1 urre eman zion artisau bali urrezko koroa bat egin ziezaion. Koroa jaso eta gero, erregeari kezka sortu zitzaion, artisauak zintzo jokatu ote zuen: susmoa zuen ez ote zuen urrearen zati bat gorde eta haren orde zilarra edo kobrea erabili.

Kobrea eta zilarra urrea baino arinagoak dira. Artisauak koroari material horietako edozein erantsi balio, pisua eta/edo bolumena aldatuko ziratekeen.


Erregeak esperimentu bat egin zuen koroa eta 1 kg urre baliatuz.

- Lehenik balantza batean pisatu zituen. Diferentziarik ez zegoela ikusi zuen.
- Gero, bi ontzi berdinean hartu zituen, ur kopuru berarekin bete zituen eta bakoitzean objektuetako bat murgildu zuen. Koroa sartu zuen ontzian uraren maila gorago igo zela ikusi zuen.



.Koroa eta urre puska balantza batean jartzen ditugunean, balantza orekatzen bada esan nahi du bi gorputzek...

- A. Bolumen berdina dutela.
- B. Material berarekin eginda daudela.
- C. Urre kopuru berdina dutela.
- D. Masa berdina dutela.




Urez beteriko ontzi batean objektu bat sartzen badugu uraren maila igotzen da. Zergatik?

- A. Ura igotzen da sartzen dugun gorputzaren pisuaren ondorioz.
- B. Sartutako gorputzaren bolumenak ur bolumen baliokidea mugiarazten du.
- C. Sartutako gorputzaren masak ur masa baliokidea mugiarazten du.
- D. Likido mailaren igoera sartutako gorputzaren osakeraren araberakoa da.



Koroa eta urre puska berdin-berdinak diren eta ur kopuru bera duten ontzietan sartzerakoan ikusi da uraren maila ez dela bietan berdin igo.

Beraz, ondoriozta dezakegu desberdina dela bi objektuen...



Esperimentuaren emaitzetatik erregeak ondorio hau atera dezake:

- A. Koroa urrezkoa da.
- B. Koroa urre puruzkoa izan daiteke, urrezko kontrapisuaren masa berdina duelako.
- C. Koroa ezin da urre puruzkoa izan, ez duelako urrezko kontrapisuaren bolumen berdina.
- D. Koroa ezin da urre puruzkoa izan, ez duelako urrezko kontrapisuaren masa berdina.

Artisauak koroa berdin-berdina egiten badu (molde berarekin eta bolumen berdinarekin) baina zilarrezko eta kobrezko aleazio batekin, horren pisua izanen da...

- A. Urrezko koroaren berdina.
- B. Urrezko koroarena baino handiagoa (1 kg baino gehiago).
- C. Urrezko koroarena baino txikiagoa (1 kg baino gutxiago).
- D. Justu 1 kg urre.